
MAULEKO IKASTOLEA LARRIUNEAN!!

Maule Xiberoko uriburua dogu. Badakigu Xiberoa Euskalerriko errialderik txikerrena dana, lurraldez zein biztanlez.

Xiberoa Iparraldeko errialderik txiroena be bada, ez dago an ia bape industriarik eta. Baiña beste aldetik, euskal kulturea ondoen jagon izan dauan Euskalerriko lurraldea da izan. Bertako "eüskara" goxoari zelan edo alan eutsi ian deutsoa orain artean xiberotarrek.

Azken urteotan, baina "eüskarak" beerakada andia egin dauana ikusita, euskalduntasunari eusteko ikastola bat, EPERRA deritxona, sortu eben Maulen orain dala ogeita bost urte, gitxi gorabeerra.

Urteak joan urteak etorri, ainbat izan dira an ikasi daben umeak. Gaur egun 65 ume daukaz beraren babesean.


Baina, gauzak okertu egin jakez azkenaldiotan. Ikastola-etxea zaartu eta arrakalez bete jake. Noraino? Ara, aditu! Ormak arrakaldu ezeze, ormok ezotasunak ta sitsek ja eta sabaia zulotu arte be. Itoginak edonon. Askotan, klaseak aterkinnen babespean emon bear izan dabe eta. Beea be, euri-urak janda. Neguan, ikasgeletan otz, kanpoan

baino otzagoa. Aizea sartu...!", azurretaraino, sartu be. Aurtongo neguan, esaten baterako, ikasgeletako otza eta ezotasunari eutsi ezinik, traste eta aulki guztiak artu eta aterpera urten bear izan dabe, klaseak artuten urten be. Barruan eutsiko euskion ama-umreik ez egoan eta!

Egoera negargarri onetan, orain dala bost urte egoitza barriaren bila asi ziran. Maulen egin ezin izango dabenez, ikastolea beste erriren baten eregitea erabagi eben. Eta egoitza barria aurkitu egin, Sohüta errian aurkitu be. Baserri zaarra erosi eta egokitu bearra dago eta orretarako dirua bear dabe. Arik arinen an asteko!

Bertako, Xiberoko udaletatik laguntza urri izango dabe, udalik geienek ez deutsse lagunduko eta. Gurasoek, orduan, ikastolea eurek euretara eregiko ebela erabagi eben. Orretarako, 20 milioi pezetako mailegua eskatu dabe. Eta osterantzeko 20 milio pezeta lortuteko, Euskalerrian zear asi dira diru batuteko kanpaina zabala eratuten. Eta Bizkaira be, ZERen bitartez, areen larritasuna eta laguntza gedarrak ekarri gura izan deutsueguz. Lagundu daiegun, ba!

Iniaki MARTIARTU
1997ko epailean



OARRA:

Laguntzak batuteko, beste ekimen batzuen artean, laguntza bonoak kaleratu dabez Euskalerrian. Bono bakotxak 4.500 pezeta balio dau. Inork argibide geiagorik gura izango baleu, urrutizkin zenbaki onetara deitutea baino ez leuk euki-ko:

EPERRA Ikastola / HABIA Elkarte
Evades de France karrika, 12
64130 MAULE-XIBEROA
Urrt.-zkia.: ++33.5.59.28.33.78